

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako sektorearen salmenta nominalak %2,0 gehitu dira 2008ko lehenengo hiruhilekoan

Handizkako sektorearen salmentak %2,4 igo ziren. Barne-merkataritza, oro har, %2,2 igo zen.

EUSTATen datuen arabera, 2008ko lehenengo hiruhilekoko Barne-Merkataritzaren Indizeak %2,2ko urte arteko gehikuntza nominala izan du lan-egutegi homogeneoari dagokionez. Prezioen igoeraren ondorioa deskontatu ondoren, 2008ko lehen hiruhilekoan merkataritza-sektorearen salmentek %0,4ko jaitsiera izan zuten.

Aurreko hiruhilekoarekin erkatuta, barne-merkataritzako salmenten datuek, desestazionalizatu ondoren, hiruhileko arteko %0,7ko igoera izan zuten termino nominaletan. Termino konstanteetan ez zuten inolako aldakuntzarik izan.

1 taula. Barne-merkataritzako salmenta indizearen urte arteko hazkuntzaren tasa nominalak. Egutegiaren ondorioen datu zuzenduak. EAE

URTEA	HIRUHILEKOA	OROKORRA	HANDIZKAKOA	TXIKIZKAKOA
2007	I	10,2	13,0	5,3
	II	8,0	11,1	2,4
	III	5,5	6,4	3,9
	IV	5,2	5,8	4,1
2008	I	2,2	2,4	2,0

Iturria: EUSTAT

Lehenengo hiruhileko honetan handizkako merkataritzan %2,4 igo dira salmentak, eta txikizkako merkataritzan %2,0 hobetu dira. Datu nominal hauek termino errealetan estimatzen baditugu, prezioen inflazio-efektua kendu ondoren, txikizkako sektorearen salmentek %0,6ko jaitsiera izan dute, eta handizkako sektorearen salmentek %1,9koa.

Handizkako sektorean, nabarmen hazi dira hauen salmenta nominalak: nekazal eta elikadura produktuak (%7,9) eta makinak eta ekipoa (%9,9). Ondoko hauek igoera txikiagoa izan dute: elikaduraz besteko kontsumo-gaiak (%0,6) eta produktu erdilanduak eta txatarra (%0,6).

Txikizkako sektorean, bai merkataritza espezializatuan bai espezializatu gabekoan, urte arteko hazkunde nominalak izan dituzte salmentek, %2,1 eta %3,0 hurrenez hurren.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan eta Bizkaian Barne-Merkataritzako Indizea gehitu egin da termino nominaletan (%3,9 eta %2,7 hurrenez hurren). Araban, berriz, %0,8ko jaitsiera gertatu da. Datu nominal hauek erreal bihurtuz gero, hurrengo emaitzak lortuko dira: merkataritzako salmentak %0,2 jaitsi dira Gipuzkoan, %0,7 Bizkaian eta %1,1 Araban.

Arabian, handizkako sektorearen salmentek bilakaera negatiboa izan dute (%-0,8), eta txikizkako merkataritzaren salmentek %1,7ko gehikuntza izan dute, termino nominaletan. Bizkaian, ordea, bi sektoreek hazkundera izan duten arren, handizkako sektorearena (%2,7) txikizkako merkataritzak izandakoa (%1,7) baino handiagoa izan da. Gipuzkoan txikizkako merkataritza %2,8 igo da eta handizkako %3,9.

2008ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-sektorean lan egiten duen pertsona kopuruak urte arteko %1,3 gehikuntza izan du: handizkako sektorean %1,4 gehitu da okupazioa eta txikizkako merkataritzan %1,2. Lurraldeka, sektore honetan urte arteko hazkunderik handiena Araban (%2,2) eman da, eta gero Bizkaian (%2,1). Baina Gipuzkoan urte arteko %0,4ko beherapena eman da.

Ohar metodologikoa:

2008ko lehen hiruhilekoko txikizkako merkataritzaren indizea 2005eko oinarri berriarekin egin da, 2000ko oinarria ordezkatzuz. Oinarria aldatzean, besteak beste, hurrengo hobekuntzak egin dira: EAEko txikizkako sektorean informazioa ematen duten enpresen ordezkaritza-zerrenda eguneratu da, eta horien kopurua pixka bat gehitu da. Gainera, txikizkako merkataritzaren indizearen serioak zuzendu eta desestazionalizatu egin dira.

2005eko oinarri den serie berria 2000ko oinarriaren seriearekin lotu da. Horrela, Barne Merkataritzako Indize honek 1993. urteaz geroztik ematen dituen hiruhilekoko eta urteko datuei etenik gabe jarraipena egin ahalko zaie. Erabiltzaileek Eustaten webgunean ikus ditzakete, datorren astetik aurrera.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es